

Liburu elektronikokoak maileguan Ataunen

Udalak eta Foru Aldundiko Berrikuntza Departamenduak elkarlanean, udal liburutegiko bazkideentzat zenbait liburu irakurgailu elektroniko maileguan erabiltzeko zerbitzu berria jarri da martxan.

Guztira 10 irakurgailu erosi dira eta 600 liburu (euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez) irakurtzeko aukera eskeintzen da. Oraingoan, irakurgailuaren mailegua egiteko udal liburutegira, bere ordutegian, zuzendu beharra dago, baina etorkizunean udalaren asmoa da maileguaren eskaria norbere etxetik egitea eta zerbitzu ordutegia egun osora zabaltzea.